



4 MENDIA

60 mendi ibilbide proposatzen ditu Perez Azacetak

Jesus M. Perez Azaceta herri-tarrak bere bosgarren liburua "Los mejores recorridos para conocer la montaña vasca" aurkeztuko du Donostiako Elkar aretoan, martxoaren 7an. Euskal Herriko 60 mendietako ibilbideak eta hauek gozatzeko gomendioak eskaintzen ditu aipatu liburuan. Denetarik ibilbideak aurki daitezke, familian egitekoak zein maila altuagoa eskatzen dutenak.

5 ANDALUZIA EGUNA

Urteko egun handia ospatu dute Semblanteko kideek

Egun berezia da otsailaren 28a andaluziarrentzat, 1980. urtean autonomia erkidego bezala osatu zirela ospatzen baitute. Herrian ere, Semblante Andaluz elkarteak antolatuta, asteburu osoan zehar izan dira ekintzak XX. aldiz Atsopakarren duten egoitzan, besteak beste, Andaluziako musika tradizionala, dantzak eta kantuak izan dira entzungai. Igandeko meza rociero eta bazkariarekin amaiera jarri zioten festari.



## Akorde eta arpegio erakustaldia

Nafarroako Goi Mailako Musika Eskolako gitarra taldeak kontzertua eskaini zuen ikuslez bete zen Brijidatarren komentuan

Gitarrak izan ziren protagonista ostiralean Lasarte-Orian. Nafarroako Kontserbatorioko ikaslez osatutako Ehun-Ari Guitarras D+ taldeak Brijidatarren komentua txiki uztea lortu zuen Eduardo Baranzano zuzendari uruguaiarraren gidaritzapean. Emanaldia Danok Kideek antolatutako VIII. Musika Topaketen barnean eskaini zuten hamabi musikariek, akorde eta arpegio erakustaldia emanez. Bestalde, Abend edaritegian heavy zaleek Metal Gauz gozatzeko aukera izan zuten gauerdetik aurrera Continuo Renacer eta Bloody Brotherhood taldeekin.

Brijidatarren komentua erabilia da musika kontzertuak egiteko duen sonoritate bikainagatik eta ostiral ilunabarrean kalitate handiko kontzertu baten lekuko izan zen beste behin.

Nafarroako Goi Mailako Musika Eskolako ikasleen txanda izan zen oraingo honetan, goitik behera beltzez jantzita behatz luze eta finak lanean jarri zituzten.

Musikariek eskainitako lan batzuk benetan teknikoak izan ziren, ezinezko arpegio eta behatz luzaketak eskatzen zituztenak, beste batzuk berriz sinpleagoak, sentimendu handiarekin interpretatu beharrekoak ikusleen txalo zaparradarekin gozatu aurretik. Eskainitako gitarra-lanetako batzuk ikasleek eurek konposatutakoak izan ziren, beste batzuk ordea mundu mailako gitarra-maisu ezagunen moldaketak izan ziren, hala nola, Tárrega, Domeniconi edota Kaspar Metz-enak.

Dena den, musikari guztiak eman zuten euren mailaren berri, baina bereziki aipagarriak izan ziren Raquel Pérez eta Yoana Cantero

musikari gazteek Bocceriniren "Fandango" obra interpretatzen egindako lana eta Carlos Onís ikasleak berak konposatutako "Por los caminos" maisulana.

Haren kantaren tituluak dion bezala, Onísek kontraste bideak irekiz jolastu zuen, doinu alai eta grabeak uzartu zituen, argiak eta ilunak nahastu. Sentimendu uholdea sortu zuen ikusleen artean isiluneekin jolasteko erakutsi zuen abileziak txundituta. Maisu handiek dioten bezala, isiltasuna ondo erabiltzea baita musika ona sortzeko bidea eta Onís-ek bete-betean asmatu zuen hortan. Isiluneak entzuleen barne-oihu bihurtuz lortu zuen. Bi obra hauen ostean "Bravo! Bravo!" ozenak entzun ziren aretoan.

Eurez gain, Amor Cartagena, Ander Perczaz, Carlos Turullols, Imanol Solores, Javier Lizalde, Kilian Carrillo, Mikel Auzmendi eta Mikel Ruano ere aritu ziren euren egurrezko gitarrei sokak astintzen, maila gehiago edo gutxiagorekin. Nafarroako eskola izan arren, Logroño edo Zaragoza bezalako hirietako ikasleak ditu Ehun-Arik.



Goian Ehun Arikoko Carlos Onís eta behean Continuo Renacer taldea Abend-en.

Metal gaua Abenden

Herriko metalzaleak ere asebetetzeko aukera izan zuten Abend-en eskainitako Continuo Renacer eta Bloody Brotherhood taldeen kontzertu biziak.

Normalean baino askoz ere jende gehiago bildu zen aretoan, eta musikariekin eser-tu egin zuten lasarteiarren harrera. Metal gogorarekin gozatu eta parranda txiki bat botatzeko parada izan zen.



**ALCAR VENTANAS**

*Etorri gure denda berrira, Plaza Oriamendi, 2. (Lehengo Doble J)*



Zuregandik hurbil



Tel: 943 37 78 68  
www.ventanasalcar.com

**ERAKUSKETA**  
Plaza Oriamendi, 2 (Lehengo Doble J)  
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

Tel: 943 37 78 68  
tienda@ventanasalcar.com  
www.ventanasalcar.com  
www.facebook.com/VentanasAlcar

**TAILERRA**  
Ibaiondo, 4  
erdisotoa 5-A

Jarrai gaitzazu Facebooken! gure jarraitzaile artean, laister hasiko gara opariak banatzen

Me gusta






## Adituak dio



## Emakumeen Zentro Zibikoa

Gaur egun, gizon-emakumeen arteko harremanetan aurrerapen handiak lortu dira baina oraindik asko dago egiteko, batez ere lan munduari dagokionean.

Desberdintasun handiak ikusten ditugu gizon eta emakumeen arteko lan baldintzetan, kasu askotan gizonen soldata emakumeena baino altuagoa izaten da hainbat enpresetan nahiz eta lan berdina burutu eta halako egoerekin amatu behar da.

Gainera, egun bizi dugun krisi ekonomikoa larri honen baitan, geroz eta emakume gehiago dira langabezia daudenak gurean. Aipatu behar da ere, emakumeok zailtasun handiak ditugula lana eta familien ardurei aurre egin ahal izateko, bi esparru garrantzitsu hauen uztarketa oso zaila gertatzen da oraindik.

Egoera honen jabe izanda, ahalegin handia egin behar dugu, gizarte bezala hezkuntzan, gu eta gure seme-alabak berdintasunean hezteko.

Nahiz eta gauza erraza dela iruditu, uste duguna baino zailagoa da gure ustetan gaur egungo gizartea oraindik prest ez dagoelako. Gure haurrek denetarikoz jostailuak izan dituzte sexuaren araberako bereizketarik egin gabe baina oraindik asko dago egiteko.

Pausoz pauso lortzen ari garen aurrerapen txiki hauek ez dira nahikoak, eta onartu behar da gizarteari berdintasunean bizitzeko bide luzea geratzen zaiola, hori bai denen artean egin beharreko bidea da, gizon eta emakumeen artean.

## Aldarrikapen eguna oraindik

Martxoaren 8a da emakume langilearen nazioarteko eguna. Ostiralean izango da beraz emakumeen eguna eta ohi bezala herrian ospatuko dute eguna hainbat taldek. 1911. urtetik ospatzen da egun hau. Aurrekariak AEBtan egon baziren ere, Alemania, Austria, Danimarka eta Suitzan ospatu zen lehenengoz urte bete lehenago Emakume sozialisten nazioarteko lehen batzarrean erabaki bezala. Geroztik aldarrikapen eguna herrialde ezberdinetara zabaltzen joan zen eta 1977. urtean Nazio Batuen Erakundeak martxoaren 8a emakumeen eskubideen aldeko nazioarteko eguna izendatu zuen. Gezurra dirudi baina oraindik emakumeen eskubideen aldeko borroka ez da amaitu. Gizartean aldaketa handiak gertatu arren, oraindik asko dira ber-

dintasunera iristeko eman beharreko urratsak. Oraindik bikoitekideen erasoak jasaten dira, genero indarkeria izenburupean urtero hiltzen dira emakumeak. Lanpostuetan gizonetzkoen baino gehiago kostatzen zaie ardura karguetara iristea, erditze aldirian lan-arazoak izaten dituzte...

Beharrezkoa da aldarrikapen eguna. 1911. urtean sufragio unibertsala zen eta egun badirudi, bozkatzeko eskumena izan arren, asko direla oztopoak enpresa munduan batez ere, gora egiteko, zuzendari, lehendakari izateko. Hezkuntzak asko lagundu du, etxeetako lanak geroz eta banatuago daude, baina belaualdi bat atzera egin eta gure amak, izebak dira aitona-amonon zaintzan dabilzanak, etxekoan zaintzaren ardura hartzen dutenak. Pausoz pauso bidea egitera goaz.

## Hitz eta pitz

## Lan arloan ba al du diskriminaziorik emakumeak?



## Patri Caballero

Nire kasuan ez, lanean ari naiz eta pozik nago, baina, bai, emakume asko daude baztertuta eta lanik lortu ezinik. Dena den, uste dut, gaur egun ez dagoela emakumea garai batean bezain diskriminatua. Askoz ere baldintza hobean gaude, baina, badaude salatzen moduko egoerak, entzun ditut lan berdina egiteagatik gutxiago kobratzen dutenen kasuak.



## Mikel Aristondo

Entzuten da lana bilatzeko orduan emakumezkoak zailtasun handiagoak dituela. Ez luke horrela izan behar, baina horrela da. Nik uste baietz. Lan berdina egiteagatik gutxiago kobratzen dutela ere esaten da, nire inguruan ez dut horrelakorik ikusi, baina, entzuten baldin bada, egia izango da. Nire ustez, oso gaizki dago hori, bi lan berdinegatik berdina irabazi behar da.



## Maite Murillo

Kasu batzuetan bai, diskriminatuak gaude. Gu gaizki gaude, baina, garai hauetan gizonetzkoen ere oso zaila dute lana aurkitzeko. Egia da, asko aurreratu dugula gai honetan. Lanetik nator, 14 urtetatik ari naiz lanean eta ez dut inoiz arazorik eduki. Momentuz. Duela 40 urte Lasartera iritsi nintzen, gaizki ikusiak ere bageunden, lanera joaten ginelako. Gero jada ez.



## Juan Jose Manuel

Gaur denak gaude diskriminatuak, gizonetzkoak eta emakumezkoak. Duela 20 urte baino askoz okerrago. Azken urteotan ez dut uste emakumezkoek zailtasun handiagoak izan dutenik lana bilatzeko orduan. Arazoak murritzaketekin etorri dira, eta beste batzuk edeki dabilta, 22.000 edo 38.000 milioi jasota. Aurpegi barre egiten ari dira. Ez dut irtenbide onik ikusten.

## Iruditan

## Etxea emakumeena



Fabrikan guztiz bukatu gabe dago irudi honetan, fabrikaren handitasuna bereizten da ondo.

XX. mende erdialdean oraindik emakumeen rola etxeko andrea izatearena zen nagusi gurean. Industrietan lan jardun luzeak egiten zituzten gizonak eta emakumeen esku geratzen ziren seme-alabak eta etxeko kontu guztiak. Michelin enpresak bi ekonomato zituen bata Lasarten eta bestea Orian, txikiagoa. Bertan emakumeak nagusi erostetarako egiten. Mostadore atzean ere batzuk ikusten dira, baina zuzenean zerbitzatzen, gizonetzkoak. Fabrika handietan emakume askok egin zuten lan, baina ezkondu eta seme-alabak jaio aurretik lanpostuak uzten zituzten nahi izan edo nahi ez izan.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



## Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



## Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

## Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

## txintxarri

## Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,  
Maider Azurmendi, Jon Altuna E.  
txintxarri@txintxarri.info

## Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

## Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Jone M.  
Hernandez, Oihana Salazar,  
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

## Informatikoa:

Xabier Amadoz

## EMAKUMEAK

# Martxoaren 8rako egitarau berezia

Ostiralean Emakumearen Nazioarteko eguna izango da eta hainbat ekintza izango da herrian

**Ohi bezala Martxoaren 8a emakumearen eguna dela eta herrian astean zehar ekintza egitaraua antolatuta du besteak beste Emakumeen zentro zibikoak. Hitzaldiak, antzerkia eta urteroko afaria ez dira faltako. Herriko emakumeak ekintzetan parte hartzera gonbidatzen dituzte.**

**A**steartetik ostiralera hainbat ekintza antolatuta ditu herriko emakumeen zentro zibikoak udal gizarte zerbitzuen laguntzarekin urtero bezala.

Egitarauaren baitan hitzaldiak, antzerkia, elkarrataratzea izango dira besteak beste. Aurtien ere ipuin kontalariekin saio bat prestatu dute.

## Egitaraua

Bihar, asteartean hasiera emango diote emakumearen eguneko egitarau bereziari. 17:30ean Kontukantoi ipuin kontalariekin izango da hitzordua Villa Mirentxun. Bearen istorioak marraztuko ditu Cesarrek saio erakargarri eta polit bat eskainiz haur zein helduentzat.

Asteazkenean eta ostegunean 17:00etan hitzaldiak antolatuta dituzte zentro zibiko-



laz herriko Jesus Muñoz psikologoa eskaini zuen hitzaldia Villa Mirentxun.

an bertan. Honetan Alazne Zaldia psikologoa adin batek aurrera sexua nola bizi behar den eta sexu harremanez mintzatuko da.

## Aldarrikapen eguna

Ostirala martxoaren 8a izanda eta egun honen helburua ahaztu gabe, elkarretaratzea egingo dute Manuel Lekuona kultur-etxeko sarreran emakumeek 16:45ean.

19:30ean berriz, egitarau berezi honen baitan antzerkia eskainiko du EPAko ikasle taldeak. Honetan "Milagro en casa de los Lopez Ayala" lana aurkeztuko dute kultur-etxean. Hau ikusteko sarrerak dagoeneko salgai daude 3,50

eurotan leihatilan eta 3,24 internetez hartuta.

Ondoren, 21:30ean aldarrikapena utzi gabe, ospakizunari tartea egingo diote.

Horrela izanda, Araeta jatetxean urteroko afari irikia egingo dute. Honen prezioa 22 eurokoa izango da eta herriko emakume guztiek har dezakete parte honetan. Auzak, hori bai, izena eman beharko da zentro zibikoan. Honetan parte hartzera animatzen dituzte herriko emakumeak zentro zibikotik.

## Semblanten afaria

Baina aipatutakoak ez dira ekintza bakarrak izango. Rocioko kofradiako lagunek

martxoaren 8an emakumearen nazioarteko egunarekin bat egin nahi izan dute eta hitzaldia eta emakumeentzako afaria antolatuta dituzte Semblante Andaluz elkarteak.

Nerea Segura elikadura eta dietetikari adituak hitzaldia eskainiko du 19:30ean elkarteak eta ondoren, izena ematen duten emakumeentzako afaria prestatu dute. Elkarteak izena eman beharko da aurretik honetan parte hartzeko. Afariaren ostean, musikak dantzarako aukera emango die bertaratuakoei.

Emakumeen egunarekin bat egitera animatzen dituzte herritarrek zentro zibikotik eta gizarte zerbitzuetatik.

## Langabeak kontratatzeagatik diru laguntza

**L**asarte-Oriako Udaleko Zerbitzu Sozialen eta Enpleguaren saileko Gorka Lizarraga arduradunak Langabeak kontratatze eskualdean jarriko diren diru-laguntzen berri eman zuen Dionisio Avila enplegu dinamizatzailearekin eta Izaskun Cuartango egitasmoaren koordinatzailearekin batera. Sei hilabetean hileroko 641,40 euroko laguntza jasoko dute martxoaren 4tik aurrera egun osorako jardunarekin langileak kontratatzen duten enpresek.

484.772 euroko aurrekontua duen Eskualdeko Enplegu Plangintza jarri dute martxan, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Usturbil eta Urnieta Udalek, eta langabeak kontratatze diru laguntza horien berri emateko kanpainari hasi du Lasarte-Oriako Udalak. 686 enpresari bidaliko zaie egitasmoaren informazioa, baina enpresa guztietara iristerik izango ez



Ostiralean egin zuten agerraldia Villa Mirentxun.

dutela jakinik, publikoki eza-gutarazi zuten ekimena Villa Mirentxun.

Diru laguntza jasotzeko zenbait baldintza bete beharko dituzte enpresek, batetik, langabezia dauden pertsonak lanaldi osorako eta gutxienez sei hilabeterako kontratatuta beharko dituzte martxoaren 4tik ekainaren 30era bitartean, langabetuak aipatutako herriren batean erroldatuta egon behar zuen

2012ko urtarrilaren 1ean eta Lanbide Enplegu Zerbitzuan izena emanda.

Diru-laguntza hileroko 641,40 eurokoa da eta enpresa bakoitzak gehienez sei aldiz jaso dezake.

Enpresa edo profesional interesatuek eskaerak aurkezteko epea 2013ko ekainaren 30 arte izango dute zabalik Andoaingo Udalaren Sustapen ekonomiko, enplegu eta Gazteria Sailean, Udaletxe

ondoan dagoen Urigain etxean.

## Informazio gehiago

Dena den, informazio gehiago nahi duenak, eskaintzaren oinarriak eta informazio orriak ikusgai dituzte Udalaren web orrialdean, interesatuak Villa Mirentxuko enplegu zerbitzuarekin ere hartuemanetan jar daitezke, eta nahi izanez gero d.avila@lasarte-oria.org helbide elektronikoan eskatu dezakete informazio gehiago.

Gorka Lizarragak eman du enplegua sustatzeko plangintzaren berri "garrantzitsua iruditzen zaigu gure Udalerriko enpresei dei egitea proiektu honetan parte hartzeko, herriko egoera sozio-ekonomikoaren suspertze aldera".

Dionisio Avila enplegu dinamizatzaileak adierazi zuenez enpresek harreman sendo eta arina izan nahi dute.

## MUSIKA ESKOLA

## Ikasleak Andoaingo piano jaialdian

Udal musika eskolako piano ikasleek Andoaingo 8. piano jaialdian parte hartu zuten otsailaren 23 eta 24an.

Guztira adinka sailkatuta hamar herritar izan ziren Basteroko oholtzan euren errezitaldiak ematen. 11 urte artekoen multzoan Ainhoa Martin, Leire Martin eta Leire Diez izan ziren. 14 urte artekoen multzoan berriz, Hugo Iñigo, Jone Castro, Maria Otxandorena, Irene Carques, Valeria Fadrique eta Alain Hurtado izan ziren. 18 urte artekoen multzoan berriz herritar bakarra aritu zen Paloma Huguet.

Txapelketa honetan ikasleek urrezko domina bat, zilarrezko sei eta bronzetzeko hiru.

## BILDU

## Herri batzarra Villa Mirentxun egin zuten

Lasarte-Oriako Bilduko batzarra egin zuen ostegunean Villa Mirentxun.

Bertan izan zituzten eztabaidagai 2013. urterako ildo estrategikoak, Hirigintza, Parte-hartzea, Gazteria, Emakumea, Aniztasuna eta Kirola.

Batzarra 19:00etan hasi zuten eta taldea gai hauen inguruan aritu ziren bertaratuak herritarrek. Koalizioko egungo udal ordezkariak ere bertan izan ziren euren lanaren inguruko azalpenekin gaitan hausnartzen.

## IKASTAROA

## Patinaje ikastaroa haur eta helduentzat

Udal kirol zerbitzuek patinaje ikastaroa antolatuta dute martxoaren 11tik ekainaren 27a bitartean.

Umeen ikastaroa 17:00etatik 18:00etara izango da eta helduen berriz, 9:30etatik 11:00etara edo 20:30etik 22:00etara.

Ikastaroak trinketean egingo dira, Villa Mirentxun atzean eta gehienez 10 kideko taldeak egingo dira.

Prezioa umeen kasuan 131,40 eurokoa izango da eta helduen 188,60 bazkideentzat. Parte hartzaile bakoitzak bere patinak eta babesak eraman beharko ditu.

Izena ematea gaurtik aurrera kiroldegian egingo da, 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara.

Jesus M. Perez Azaceta Mendizalea eta idazlea

# “Segurtasuna ere garrantzitsua da”

Maila ezberdinetarako 60 mendi ibilaldi dituen liburua aurkeztuko du aste honetan

**Jesus M. Perez Azaceta herritarrek bere bosgarren liburua “Los mejores recorridos para conocer la montaña vasca” aurkeztuko du martxoaren 7an. Honetan Euskal Herriko 60 mendietako ibilbideak eta hauetaz gozatzeko gomendioak eskaintzen ditu.**

Nerea EIZAGIRRE

Jesus M. Perez Azaceta-ren zaletasuna, mendia, bere ogibidea ere bada. Mendira joan eta argazki kamera eta koardernoa ditu beti gainean. Honela liburuak osatu eta “Los mejores recorridos para conocer la montaña vasca” aurkeztuko du ofizialki ostegunean Donostiako Elkar aretoan. Hala ere, Durangon jarri zen salgai eta harrera ona izan duela aipatu digu berarekin izan dugun solasaldian.

## Nola sortu zen liburua egiteko ideia?

Mendian ibiltzen hasteko gida bat egiteko ideia sortu zen. Urte asko daramatzagu mendian eta beti dago jende berria, gazteak, gauzak galdeztzen dizkizuna.

Hasierako ideia hori zen. Baina idazten eta irteerak egiten nindoan heinean, osatzen joan nintzen eta mendian hasi berriak direnak eta esperientzia gehiago dutenek erabili dezakete liburua. Azken hauek ibilbide berriak ezagutu ditzakete.



Jesus M. Perez Azaceta bere liburu berriarekin.

## Beraz, zer aurki dezakegu liburuan?

Azkenean 60 ibilbide eta igotera ezberdin batu ditugu liburuan.

Maila ezberdinetan banatu ditugu, batetik bestera. Lehengo mailan ibilbide errazak daude eta azkenean, igotera zailko mendiak daude eskalada beharrezkoa dena batzuetan.

Honela, bakoitzak ikusi dezake zein igotera edo ibilbide egin dezakeen edo komeni zaion egitea.

## Mendi ezagunenak daude liburuan?

Niretzat adierazgarrienak diren mendiak dira. Baina lurralde eta maila ezberdinetakoak aukeratu behar izan ditugunez, maila bakoitzean hamabi daude.

Euskal Herrian mendi pila dugu, oso politak eta ez dira ezagutzen. Liburuan 60 ibilaldi eta mendi daude baina guztiak ez dituzte ezagutzen.

## Beraz, aipatu legez bide ezberdinak bilatu dituzue?

Gehienak ibilbide ohikoak dira. Besteetan gailurrak ezagunak dira, baina aukeraturata-

ko ibilbidea ez, hala nola, Hiru Errege Mahaia ez goaz ibilbide normaletik, baizik eta Belaguako txokotik Mata de Hayatik atera eta zazpi ordu eta erdiko ibilbidea, 1500 metroko igoera duena... Anbotora gailurreritik goaz, Alluitz-Anboto egiten da eta nire ustez, hori da liburuko ibilbiderik zailena.

Urederratik hasi eta Alluitz Anbotoko ibilbidearekin amaitzen da.

## Ibilbideez gain, gomendioak ere ematen dituzu liburuan...

Liburua egiterakoan, pentsatu genuen oinarriko eskuliburu egitea. Guk urte asko daramatzagu eta guztia dakigula dirudi, baina ez da horrela.

Horregatik maila bakoitzean gomendioak txertatu ditugu ba mendizaleasunari buruzko oinarriak, nola pres-tatu, elikagaiak eta osasuna, entrenamenduak, orientazioa... GPSarekin ezin da edonora joan, horregatik mapak irakurtzen jakin behar da, izarrek nola aurkitu norabide zuzena etab.

## Horietako batzuk segurtasunarekin zer ikusia izango dute, ezta?

Bai horrela da. Segurtasuna ere garrantzitsua dela aldarrikatatu nahi dugu.

Eskuliburu bezala erabiltzea da liburua helburua, baina ez da nahikoa. Nahitaezkoa da federatua izatea eta elkarte baten eskutik bada hobe. Klub horiek ikastaroak ematen dituzte, orientazioa, mendira joateko prestaketa etab.

Mendian ematen diren lehenengo pausoetan mendia ezagutu eta esperientzia duen norbaitekin joatea komenigarria da.

Izan ere, hemen ere istripuak daude eta jendea hotzez hiltzen da.

Lehengo egunean Hiru Errege Mahaia eta Anie inguruan ginela, bertako batek esan zigun uztailean ere hotzez hil izan dela jendea. Hemen ere gerta daitezke zorigaitzakoak.

Ongi prestatu behar dira irteerak joan baino lehen, nora joango naiz, zein eguraldi egingo duen, zenbat ordu izango diren, non geratuko naizen... Hori da garrantzitsua, gero gozatu dugu bidez eta mendiaz.



Adarra aldean dagoen Mulisko gaina gune megalitikoak.

JESUS M. PEREZ AZACETA

## Liburu honetan, besteetan bezala, ibilaldiaren ondoren zer egin edo zer ikusi proposatzan duzu?

Hori nire ikurra dela esan daiteke. Donostia-Baiona eta Irati-Belagua Trekking liburuetan egin nuen antzera, hemen ere, ibilbidea egin ostean inguruan ikusi daitezkeen monumentu, museoak... txertatu ditut. Izagara bazoaz, hor ondoan Santa Fe-ko garaia dago. Bertan arratsalde pasa joan zaitezke edo familiarekin joan hau ikustera. Ibilbide bakoitzean inguruko “zer egin” bat dago.

Eta hemen zerbait gehiago atxiki dut, bazenekien atala. Mendizaleok badakigu Everest, Aneto edo Annapurna igo zuen lehen pertsona zein izan zen, baina hori ez daki edonork.

Beraz, mendizaleasunari buruzko horrelako datuak sartu ditut, hala nola, 8.000 metroko mendien artean igo zen lehena Annapurna dela edo Ernioko gurutzea noiz inauguratu zen, 11 metroko altuera duela...

Hau eginez, nik ere gauza eta leku asko ezagutu ditut. Izan ere, hemen gauza asko dugu eta ez ditugu ezagutzen. Sherpen bizitzari buruz gauza asko dakizkigu, baina hementi etnografiari buruz gauza gutxi.

## Zure esperientziak baliatu zara hau idazteko?

Nik urte asko daramatzat

mendian, baina gainera, mendizaleasunarekin zer ikusia duen lana daukat. Nire zaletasuna ogibide ere bada. Sua argialetxean egiten dut lan eta bi aldizkari egiten ditugu, “Euskal Herria” aldizkaria eta “El mundo de los pirineos”. Orduan batetik eta bestetik osatzen joan naiz.

## Baina mendizaleengan esperientzia garrantzitsua da...

Esperientzia da mendizaleen bertuterik garrantzitsuenetarikoa. Baina ez da esperientzia horretara azkar iritsi behar. Mendiak egiten eta egunero gozatu, nahi gabe edo konturatu gabe esperientzia hori hartzen da.

Orain lasterka egin nahi da guztia. Gero eta gehiago nahi dela eta Txindoki edo beste mendi batera igo baino lehen, jendea Alpeetara edo Ande eta Himalayara trekking bat egitera doa.

Horregatik, liburua beste oinarrietako bat jendeak sen ona erabiltzea da. Hasieran inguruko mendietatik hasi eta pixkanaka Euskal Herrikoak egin. Gero agian Piriniotara, Alpeetara edo Himalayara joan daitezke.

Era honetara liburu honekin ibilbide sinpleenetatik hasia aldarrikatzen dut. Esperientzia hartu eta gero aurrerago urrutitu dauden mendiak egin ditzakegu.



Gitanillos del Alba taldeko gaztetxoak dantzan, Andaluzia Egunaren omenez Arantzazuko Amaren elizan ospatutako meza rocieroan.



Mugica, Arrizabalaga, Barrio, Nogales eta Prieto zinegotziak bazkariko une batean.

# Andaluziar izateaz harro

► *Herriko Semblante Andaluz elkarteak XX. aldiz ospatu du euren lurraldearen eguna, Andaluzia Eguna*

Egun handia da otsailaren 28a andaluziarrentzat, 1980. urtean autonomia erkidego bezala osatu zirela ospatzen baitute. Herrian ere, Semblante Andaluz elkarteak antolatuta asteburu osoan zehar izan dira ekintzak Atsokabarren duten egoitzan. Pablo Barrio alkateak igandeko bazkaria baino lehen esandako hitzek laburbiltzen dute hobekien andaluziar eta euskaldunek komunean dutena: "Sustraiak non dituen ahazten ez duen herria, bizirik dagoen herria da".

**Jon ALTUNA EGITEGI**

Ostegunean "fino" ardoarekin brindisa eginda eman zioten hasiera Semblante Andaluzeko kideek Andaluzia Egun handiari. Hortik aurrera, igande arratsalderaino etenik izan ez zuen ospakizuna izan zuten.

Urte osoan zehar entseatzten ibiltzen diren taldeek asteburu osoan euren lana erakusteko aukera izan zuten. Azabacheri dantza taldeari dagokionez, tango, pasodoble, sevillana eta alegría fla-

menkoa dantzatu zituzten euren gonak lau haizetara astinduz ostiral iluntzean.

Merche Montes en koplara andaluziar herrikoiek berri, jendeari bertako oroitzapenak gogorarazi zizkieten.

Behin larunbata iritsita, Gitanillos del Alba gaztetxoaren dantza taldearen, Duende Flamencoko lau neska gazteen eta Zambra taldearen txanda izan zen.

**Igandean, festa nagusia**

Ospakizun bereziak ordea, festaren egun handia, igandea

izan zen. Goizean meza rocieroa egin zuten Arantzazuko Ama Birjinaren parrokian eta herriko andaluziarrek Jaungoikoari beraien lurraldeko produktuak, oliba olioak, erroskilak, ozpina etab. eskaini zizkieten aldarean jarrita.

Semblante Rociero abesbatzak hainbat abesti jo eta kantatu zituen mezan, tartean Rocio amabirjinari eskainitako "salve" zoragarria.

Meza amaituta, Semblante Andaluz elkartearen egindako bazkarian 120 jankide elkartu ziren. Besteak beste, alkatea eta udal zein eliz ordezkariak izan ziren bertan. Jateari ekin aurretik ordea, Jose Pérez presidentek hitz politikak izan zituen aurreko zuzendaritzarekiko, Abdon Fernández presidente ohia eta haren emaztearekiko. Bazkaltzeari ekin aurretik Andaluziako erreserka abestu zuten lege onez.



Azabache dantza taldea abanikoak eskutan eta Semblante Rociero "salve"-a abesten.



Merche Montesek Andaluziako kanta tradizionalak abestu zituen.



Zambra taldeak emanaldi koloretsua eskaini zuen sevillanak dantzatzu eta gona berdeak lau haizetara astinduz.

## ATLETISMOA.-

# Jon Ander Bruño Gipuzkoako txapeldun

Ormazabal, Galardi eta Altunak txapeldunordetza eta Sevillanok brontzea lortu zituzten

**LOKEko eta herriko atletak Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten lehengo asteburuan, otsailaren 23 eta 24an. Herriko taldeko atletak aurreko asteetan lortutako domina eta tituluaren poltsara beste lau gehitu zituzten, bat urrezkoa eta beste hiru zilarrezkoak.**

## Nerea EIZAGIRRE

**L**OKEko gazteek ez dute atsedenik. Lehengo asteburuan Gipuzkoako absolutu txapelketan lehiatu izan ziren Donostian eta ez ziren esku hutsik bueltatu urrezko domina bat eta hiru zilarrezko lortu baitzituzten. LOKEko Oscar Goikoetxea entrenatzailea pozik agertu da txapelketako emaitzekin, "ohikoak ez diren atletak lortu dituzte dominak oraingoan".

Izan ere, Oscarrek azaldu legez, atleta batzuk asteburu honetan Antequeran proba zutela eta, ez ziren ohiko probetan lehiatu edo gutxiagotan lehiatu ziren.

Hauetaz gain, Real Sociedad taldean dagoen Iñigo Sevillano herritarrak ere domina eskuratu zuen, brontzezkoa 60m. hesietan.

## Dominak

Jon Ander Bruño da Gipuzkoako txapeldun titulu berria eskatu duen atleta. Jauzi hirukoitzeko proban lortu zuen garaipena. LOKEko atletak 12 m 41 zmk-ko jauzia egin zuen bere lehen saiakeran eta bere marka hobetu zuen era horretara.

Honetaz gain, zilarrezko hiru domina lortu zituzten LOKEko atletak.

Lehenengoa Ane Galardi gazteak eskuratu zuen luzera jauzian.

Anek ez zuen lan erraza izan, bere lehen jauzietan ezin izan zen 5 metroetara iritsi. Laugarren postuan amaituko zuela zirudien arrian, azkenekoan 5m. eta 16 zmk egin eta bigarren postuan amaitu zuen lehiaketa.

Era berean, Gaizka Ormazabalak 200 m. lasterketan lortu zuen bigarren postua.



Jon Altuna 800 metroko lasterketako podiumean, bigarren koskan.

I. LOS ARCOS

Gaizkak finalurrekoan ederki korrika egin eta finaleko saikatu zen bere lasterketako bigarren bezala. Fianlean, berriz, 22sg. 69 denbora egin zuen, bere marka onenetik oso gertu, zilarrezko domina eskuratu.

800 metroko lasterketan lortu zuen LOKE-k azken txapeldunordetza, Jon Altuna

Egitegi Txintxarriko lankideak zilarra erdietsi baitzuen.

Jonek lasterketa bakarra izan zuen bere onena emateko eta 2:01:45 denbora eginaz, bere marka pertsonala 76 ehunenekotan hobetu zuen.

Hauetaz gain, Real Sociedad taldean dagoen Iñigo Sevillano herritarrak ere

domina eskuratu zuen 60 m. hesi-lasterketan.

Iñigok brontzezko postua eskuratu zuen (9sg 01), finalean bere taldeko bi kide aurretik izan zituen.

## Finaletan ere ordezkariak

Ez ziren hauek izan finaletan parte hartu zuten atleta bakarrak izan.

Ane Galardik gertu izan zuen bigarren domina, jauzi hirukoitzeko finalean laugarren izan baitzen.

60 m. proban bi atleta izan ziren finaletan, Yeray Veronizek 7. postuan amaitu zuen lasterketa eta Eneitz Busto 8. izan zen nesken lehiaketa.

Itoitz Rodriguez 200 m. lasterketako finalean izan zen eta 6. postuarekin konformatu behar izan zuen.

Luzera jauziko proban Idoia Olasagasti eta Eneitz Busto gazteak ere izan ziren lehiatu. Hauek 7. eta 8. postuan, hurrenez hurren, amaitu zuten proba.

Hauetaz gain, pisuan Asier Eizagirre aritu zen eta Brayán Izquierdo, Idoia eta Saioa Olasagastik 60 metro lasterketako proban parte hartu zuten.

## PILOTA.-

# Udaberri txapelketako finalerdietara sailkatu da Intza

**I**ntzako II. mailako pilotari jubenilek Udaberri txapelketako finalerdietan izateko txartela eskuratu dute. Alexander Alvarez eta Aritz Solanok osatutako bikoteak larunbata arratsaldean lortu zuen balentria, Michelingo pilotalekuan Andoaingo Gaztelekuri 22-18 irabazita, partidu luze baten ostean.

Larunbatekoa Udaberri txapelketako fase erregularren azken partidua izan zen, eta sailkapeneko lehen lauk berdin-tuta zeuden ligaxkan, partidu kopuru bera irabazita.

Patuak hala erabakita, Hondarribia eta Azkoitia lehen bi sailkatuek elkarren aurka neurtu zituzten indarrak azken jardunaldian eta laugarren zihuan Intzak berriz, hirugarren sailkatu Gazteleku izan zuen aurrean. Hortaz, bi partidu horietako irabazleek eskuratuko zuten finalurreko-atarako txartela eta zorionez etxean geratu zen.

Hala ere, partidua benetan gogor eta luze joan zen. Andoaingo Eneko Maiz aurrelariak kalitate printzak utzi zituen, eta tantoak erabakitzekeo ardura bere gain hartu zuen uneoro, baina Mikel Arberas atzelariaren lan seguru eta duina eginagatik, pilota frontisera eraman besterik ez zuen egiten, etxekoei bitartean, izugarri kostatzen zitzairen tantoak errematzea partidu osoan aurretik joan ziren. Hala ere, aleka eta apurta tantoak metatu eta partidua irabaztea lortu zuten.

Pozik mintzo zen Solano entrenatzailea partidu amaieran: "Azkoitia edo Hondarribia izango ditugu aurrean finalurrekoan, pilotari gogorrrak dituzte, eta Azkoitiak irabaziko balu mesede guretzat, joan-etorriko kanporaketa izanik itzulikoa etxean jokatuko baikenuke, eta Hondarribiak irabazita berriz, itzulikoa kanpoan".



Alexander Alvarez Intzako aurrelaria pilota astintzen, atzean Aritz Solano herritarra begira duela.

## Gainontzeko partiduak

I. mailako jubenilek finalurrekoetara sailkatzeko aukerarik gabe jokatu zuten Udaberri txapelketako azken partidua Michelinen bertan, hala ere, azken hatseraino egin zuen borrokan Julen Chiapuso eta Mikel Aranguren osatutako bikoteak.

Aurrean Zegamako Tartalotxe eskolako bikote gogorra izan zuten, eta ordubetik pasatxo partiduaren ostean, amore eman behar izan zuten, 19-22ko emaitzaz.

Infantilei dagokionez berriz, Gipuzkoako Errendimendu Txapelketako azkenurreko partidua jokatu zuten

Hernaniren aurka. Jon Ibsate eta Jokin Rodriguez herriko pilotari gazteek eutsi egin zioten Hernaniko bikotearen oldardaldiari partidu erdiraino, baina hamarna berdinduta joan ostean, hernaniarrek ia erreskadan egin zituzten azken 8 tantoak partidua 18-11 itxeko etxekoen kaltetan.

## Agenda

Osteguna 07, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxea



### Bikote harremanak

Ostegun zinea atalean, "Si de verdad me quieres..." filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. 30 urte elkarrekin egon ondoren, bikote batek elkarrekin jarraitu eta banantzeko erabakia hartu behar du. Horretarako asteburu batean aholkularitza jardunaldi batzuetara doa. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

berria aurkeztuko du. Rock-funk doinuak izango dira nagusi. Jokin Telleria herritarra taldeko kidea da. Jaialdi honetan, Blami Dj-ak ere parte hartuko du. Kultur kale zikloko ekitaldia da.

### Emakumearen eguna

VILLA MIRENXXU

Astearte 05, 18:30ean

Kontukantoi-ren eskutik ipuin liluragarriak entzuteko aukera izango da.

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Asteazkena 06 eta osteguna 08, 17:00etan

Alazne Zaldua psikologoak hitzaldia eskainiko du. Adin batetik aurrera sexua nola bizi eta sexu harremanak mintzatzeko da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 08, 16:45ean

Elkarretaratzea Manuel Lekuonako sarreran.

Ostirala 08, 19:30ean

EPA-HHI-ko Lan eta Lan antzerki taldeak "Milagro en casa de los Lopez de..." lana eskainiko du. Sarrera, leihatilan 3,50 euro; internet bidez, 3,24 euro.

SEMBLANTE ANDALUZ

Ostirala 08, 19:30ean

Nerea Segura elikadura eta dietetika adituak hitzaldia eskainiko du. Ostean, emakumeentzako afaria eta dantzaldia izango dira. Rocioko kofradiak antolatua.

ARAETA JATEXE

Ostirala 08, 21:30ean

Herri afari gozoa emakumeentzat. Izena ematea Emakumeen Zentro Zibikoan.

### Lasarte-Oria

#### Bakarrizketa

ABEND KAFE-ANTZOKIAN

Ostirala 08, 21:00etan

Mario Simancasen bakarrizketaz goratzeko aukera. Aurretik Barrikotea izango da. Sarrera, 25 euro dira. Afarirako erreserba egin behar da, 656 794 055.

#### Hitzaldiak

GANBO ITURRI ELKARTEKO EGOITZA

Astearte 05, 19:00etatik aurrera

"Pyrenaeus" sarea hitzaldi zikloaren

barruan, Enrique Ayerbe geografoak hautu pirinioarraren balio geostrategikoak mintzatzeko da.

Osteguna 07, 19:00etatik aurrera

"Pyrenaeus" sarearen barruan, Manu Gonzalez medikuak "Gizakian oinarritutako kirola; gizatiartzeko gaitasuna daukan kirola" hitzaldia eskainiko du.

#### Elkartasuna

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN

Larunbata 09, 16:30ean eta 19:00etan

Aitor Landa herritarra laguntzeko Pirritx, Porrotx eta Marimotsek Sentitu, pentatsu, ekin" emanaldia eskainiko dute.

Kukuka antzerki eta dantza eskolako dantzariak eta Jalgune elkarte lagunak ere izango dira bertan. Sarrera, 7 euro.

#### Musika

MENDI KAFE ROCK

Larunbata 09, 20:00etan

Nia Moore King bakarlariak "The Bluebirds" taldearen laguntzaz soul, jazz eta blues doinuak eskainiko ditu, Kultur kale zikloaren barruan. Doan.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 09, 23:00etan

Oreindik taldeak "Berdinelite" diska

## Herritarren txokoa

#### Elkartasun azoka

Donostiako Santa Teresa ikastetxeak

elkartasun azoka txikia egingo du, martxoaren 7 eta 8an. Bi poriketuentzako dirua jasoko dute: batetik Kolonbiako haur-jangela batentzat eta bestetik Indiako iparmendebaldeko herrikketako emakumeekin lan egiteko.

Azoka goizez, 9:30 eta 13:30ak artean eta arratsalde, 15:15 eta 18:00ak artean egongo da irekia lbaeta auzoan dagoen ikastetxean.

#### Berpiztu lokal bila

Berpiztu Giza ekimenerako elkarte lokal bila ari da elikagaiak eta banaketa egiteko. Elkarteak astelehenero 100 familiari janaria banatzen dizkiete eta lokal bat behar dute bere ekintza aurrera eramateko. Lokala uzteko prest dauden herritarrak, 629 445 949 telefono zenbakira deitu behra dute.

#### Ostadar SKT-eko bulego ordutegi aldaketa

Ostadar SKT-ko bulego ordutegia



aldatzen da. Bulegoa 18:00etatik 20:00etara egongo da irekia astelehenero ostiralera.

#### Biyak Bat-ekok irteera Iratxera

Biyak Bat elkarteak 2013. urteko irteerari hasiera emango die martxoaren 21ean. Oraingoan, Lizarraldeko egingo dute, zehazki Iratxeko monastegira.

Izena ematea gaur ireki da. Txangoan parte hartu nahi dutenek Biyak Bat elkarte bulegoan eman behar dute izena, 10:30etik eta 12:30era. Irteeraren prezioa 34 euro-takoa izango da elkarte bazkideentzat eta bazkide ez direnek, aldiz, 38 euro ordaindu behar dituzte.

#### Biyak Bat elkarte kuota

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakin arazten die urteroko kuota, 8 euro, martxo amaiera arte ordaindu ahalako dela egoitzako bulegoan goizeko 10:30etik 12:30era.

Era berean, hiru hilabete hauetan, 2011 eta 2012 urteko bazkideentzat ordaintzen ez dutenei baja emango zaiela jakitera ematen du elkarteak.

85 urtetik gorako bazkideek ez dute ordainketarik egin behar.

#### Uztaro kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarte lokallean banatzen dira barazki eta fruitak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

#### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ezkontza eraztuna, bi ordulari, sei betaurreko graduatu, patinete bat, euritako anorak bat eta bost mugikor.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzain Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.



#### Korrika-ko kilometroak salgai

Korrika 18-ko kilometroak salgai daude. Lasarte-Oriako elkarte, alderdi politiko edo banakakoek erosi dezakete kilometroa. Gure herrian kilometro erdiak izango lirake.

Kilometro erdiren bat hartu nahi dutenek Munterri-AEK-ra hurbildu edo 943 372 863 telefono zenbakira deitu behar dute.

#### Korrika laguntzaile txartelak

Korrika 18-ari babesa emateko laguntzaile txartelak honako lekueetan daude salgai: Jalgi Kafe-antzoa, Artizar taberna, Ilargi taberna eta Munterri-AEK-n.

12 euro balio duen txartela erosi, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko ehunka komertzioetan beharpenak eskuratzeko dituzte herritarrek.

#### Korrika 18-ko arropa salgai

Korrika 18-aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Cesar Bozal German Aiztogile eta labanagile artisaua

# “Ez dago aiztogintzatik bizitzerik”

- Aiztoak eskuz nola egiten diren azaltzen duten hiru liburu idatzi ditu azken urteotan
- Internet-eko foro batean jarritako bere azalpenak bost urtean 110.000 bisita jaso ditu

**Cesar Bozal artisauak, aizto eta labanak egiten ditu eskuz, baina aiztogintzatik ezin da bizi eta beti egin du beste lanen bat. Iaz ireki zuen oinetako konponketa denda Aralar plazan, Sirimiri elkartearen parean. Batetik, oinetakoak konpondu, giltzen kopiak egin, aizto, labana, guraize eta beste zorroztu... denetarik egiten du eta bestalde, aizto eta labanak dauzka salgai. Berak eta beraren beste adiskide artisauak egindakoak, zein industrialak, kalitate eta prezioarengatik berak aukeratutakoak. Hiru liburu idatzi ditu eta artisauen bi elkartetako ordezkari ere bada, Trintxerpen jaio eta Lasarte-Orian bizi den artisaua.**

Jon ALTUNA IZA

Cesar Bozalek odolean darama artisautza, amaren aldeko aitona zapatagilea zen, Donostiako alde zaharrean zuen denda, eta aitaren aldekoak alpagatagileak ziren Errioxan. Gainera altzarien fabrikazio eta konponketa ikasi zuen Lanbide Heziketan. Altzari konpontzaile hasi zen lanean, oinetako konponketa denda izan zuen Egian, baina gero 18 urtean aritu zen arte grafikoetan, beste bost publizitate agentzia batean, eta bi urte ikuskizunak antolatzen dituen enpresa batean, duela bi urte langabezia geratu zen arte. Iaz ireki zuen denda: “Ez zen beste irtenbiderik, gauzak asko okertu dira eta baldintza kaskarrak besterik ez dizkirate eskaini”. Orain ere bizimodua aurrera ateratzeko ordu asko pasatzen ditu Cesar Bozalek Aralar plazan daukan dendan.

## Zer da aiztogile-artisaua?

Aizto edo laban propioa eta bakarrak ia dena eskuekin sortzen dituen artisaua da. Zuk prestatzen duzu diseinua, eskuz, ordenagailurik erabili gabe eta gero, zuk egingo duzu dena: luzera erabaki, altzairua aukeratu eta moztu, heldulekua diseinatu, materiala (egurra, hezurra, adarra...) hautatu eta narrazio bere zorroa egin.

## Noiz pentsatu zenuen zaletasuna ofizio bihurtzea...

Duela zazpi urte hasi nintzen azoka garrantzitsuetan parte hartzen, eta, horien artean esanguratsuenan, Alcobendasako nazioarteko azokan. Europa osoko 50 bat artisau elkartzetara gara. Lanak ikusgarriak izaten dira.

## Zaila dago hortik bizitzeko...

Europa ia osoan, AEBetan, Mexikon eta Argentinan tradizio handia dago, eta asko baloratzen da aiztogintza arti-

saua. Hemen, aldiz, ez dago interesik. Kontrakoa, alderatu egiten dituzte produktu industrialekin eta oso garestiak direla esan.

Adibidez, nik 130 euroan saltzen dudanaren antzeko aizto industrialak 70 balio ditu.

Horregatik ez naiz artisau azoketara joaten, ez baldin badira soilik aiztogintza eta labanagintzari buruzkoak.

## Santa Ana azokan izaten zara...

Bai, herrikoa delako. Baina ez dut saltzen eta ez du merezi. Bartzelona, Albacete edota Madrilen, patrikan dirua darabaten bildumazaleak ibiltzen dira, arte lanetan dirua gastatzeko prest daudenak.

## Zeintzuk izan ziren zure lehen pausoak aiztogintzan?

Bitxia izan zen hasiera, apustu bat tarteko. Duela dozena bat urte, Palentzian aizto eta labanak eskuz egiten zituen lagun bat ezagutu genuen, nahiko politik ziren, baina ez zitzaizkidan horren bereziak iruditu.

Eta berak esan zidan, “egin ezazu zuk bat”. Erdi txantxetan hartu nuen eronka, baina hemen jakinmina jarri zitzaidan: ikertzen hasi nintzen, altzairuak eta aizto on bat egiteko zer behar den begiratzeko. Bi aizto egin eta eraman nituen. Bertain saldu nituen eta begiak ireki zitzaizkidan. Pintura edo egur tailak artistikoki eman ez zidaten zerbait eman zidan.

## Zure kontura ikasi al zenuen?

Bai, autodidakta izan naiz. Gaur egun, internet dagoenetik oso erraza da hori. Baina orduan ez. Datu bitxi bat emango dizut. Aiztogintzako foro argentinaren batean ikasi dut dakidan gehiena. Duela bost urte aizto bat egiteko tutoretza zintzilikatu nuen bertan. Bost urtean 110.000 bisita izan ditu. Gero nire lehen liburu bilakatu zen lan hori.



Cesar Bozal, dendan, idatzi duen hirugarren libururekin. Laugarrena prestatzen ari da.

## Elkarrizketa oso osorik txintxarri.info webgunean

### Eta gerora beste bi liburu idatzi dituzu...

Hiru liburu idatzi ditut eta laugarrena idazten ari naiz. Argi daukat, liburuak irakurri gabe ezin hobeki ulertu behar direla. Hortik aurrera interesa duenak irakurriko du.

Horregatik, 1.200 argazki baino gehiago dute azken bi liburuek. Argazki gehienak, eskumako eskuarekin eginak daude, ezkerrekoa lanean zen bitartean. Nire semeak eta Jose Mari Berasarte adiskide minak ere lagundu didate argazkiak ateratzeko.

Berasarte da nire ikaslerik onena. Bere tailerrean propoziozko labe bat daukagu altzairua lantzeko. 1.400 gradura berotu daiteke. Bera artista da, estetikari ematen dio garrantzia. Nik, aldiz, funtzionaltasunari edo erabilgarritasunari.

### Nola ezagutu zineten Lasarte-Oriako bi aiztogileak?

Bitxia da nola ezagutu ginen duela 8-10 urte. Navarra aizto-dendan esan omen zioten nik aiztoak egiten nituela eta etxera deitu zidan. Bera harakina zela, aiztoak “tuneatzen” zituela, eta gehiago ikasi nahi zuela. Esan nion ez nuela eragozpenik erakusteko eta adiskide handiak gara ordutik. Jose Mari garai baterako utzi egin du aiztogintza, baina seguru nago itzuliko dela.

.....  
**“Ingelesez egongo da laban edo aiztoak nola egin erakusten duen libururen bat, baina, gaztelerez munduan bakarrak dira nire hiru liburu horiek.**

har, hezur, adar eta abarrak. Dena den, gerora hauek arazoren bat eman dezakete eta sarri egonkortutako materiala erabiltzen dugu. Egurrari erretina injektatu eta bere ezaugarriak mantentzen ditu, baina plastifikatua geratzen da eta ez dauka hondatzeko arriskurik.

Zorroa 3-4 mm zabalera duen behi-larruarekin egiten dugu normalean. Ia beti eskuz jositakoa izaten da.

### Azokatan ibiltzen zara, zein da merkatuaren egoera?

Nik salmentetan hobera egin dut azken urteotan. Azokak gero eta ezagunagoak dira, beraz, gero eta ikusle gehiago dabil eta ez da salmenten jaitziera handirik nabaritu. Nire ustez ez dira produktu garestiak. Europako herrialdeetatik artisauak etortzen baldin badira nabari da saltzen dutela.

### Denda jarri duzu eta zure marka ere badaukazu...

Bai, BC, Bozal German abizenak dira. Horrekin sinatzen ditut nire aiztoak. Gaur egun, denbora gehiago izan nahi nuke aiztogintzan aritzeko, baina azken finean egunero jan behar da, eta jaten ematen daitenak, oinetakoak eta giltzak dira. Ez aiztoak. Saiatzen naiz lanik ez dudanean aiztoak egiten, izan ere, martxoaren 15ean Alcobendaseko nazioarteko azokara 20 aizto eramatean saiatuko naiz.

Baina zaila izango da, horretarako lanunbat eta igandetan lan egin beharko nuke, goiz eta arratsalde, eta eguerditan korrika bazkaldu eta lanera etorri.

### Zenbat denbora behar duzu aizto bat egiteko?

Aiztorik soilenak egun batean egin daitezke. Txikiak, luzeran gehienez 17-18 zentimetrokoak eta narrazio zorro bat, 8 bat ordu. Hortik aurrera nahi duzun guztia luzatu zaitezke eta nahi beste ordu pasa.

### Hori nabaritu du azken salneurrian?

Bai, baina arazo handi bat bada, salneurri eta orduak ez dutela lotura logikorik, alegia.

Zortzi ordutan egindako aizto batek 125 euro balio badu ere, 64 ordutan egindakoa ezin da 1.000 eurotan saldu. Pentsaezina da hori.

Horregatik, joera denbora murriztekoa da, erosleak ez duelako hori estimatzen.